

EKIMENAREN OINARRIAK:

1. **Ipuinak euskaraz kontatzea, 6 urtetik beherako umeentzako** moduko hizkuntzan.
2. Hurrekin harremana duten Oarsoaldeko guraso, aiton-amona edota osaba-izeba guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera. **Ez dago adin mugarik eta banaka nahiz talde gisa** hartu ahal izango dute parte. Talde gisa parte hartzu gero, partaide baten datuak adierazi beharko dira.
3. Pertsona bakoitzak **nahi adina ipuin** konta eta bidal ditzake.
4. **Ipuin originalak eta inon argitara gabeak** edota jende askok ezagutzen ez dituenak izatea baloratuko da. Honek ez du kentzen, ordea, nahi izanez gero, ipuin klasiko edota ezagun baten bertsio edo aldaera aurkezteko aukera. Horrelako bat har daiteke oinarri gisa, eta hura garatu gero ipuin berri bat osatzeko “alderantzizko ipuin”en erara.
5. Ipuinek **ahozkoak edo idatzizkoak** izan behar dute. Ahozkoak kasetea, mp3a edo eskuko telefonoa bezalako audio euskarrietan grabatuta edo e-mailez helbide honetara bidalita aurkeztu beharko dira: euskara@oarsoaldea.net. Halaber, nahi duenak Errenteria, Lezo, Oiartzun edo Pasaiako edozein ikastetxetan entrega dezake. Ipuinaren ondoren, izen-abizenak, telefono zenbakia eta herria ere grabatu edo idatzi beharko dira.
6. Ipuinen **luzera** gehienez:
 - a. **2 orrialde** tarte bikoitzarekin idatzizko ipuinentzat
 - b. **5 minutu** grabatutako ipuinentzat
7. Aurkeztutako **10 ipuin onenak Cdan grabatuko dira**, eskualdeko gurasoei banatzeko gero
8. Ipuinen **edukia librea** izango da, baina, betiere, 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzako moduako izan behar du.
9. **Ipuinak aukeratzekoan, alderdi hauek** izango dira kontuan: orijinalak diren, ulergarriak, istorioa nola eraikita dagoen, zer mezu duen, hurrenkera horretantxe.
10. Ipuinak **entregatzeko epea 2009ko urriaren 9tik azaroaren 30era** izango da.
11. Ekimen honetan **parte hartzeak esan nahi du Oarsoaldeari ematen zaizkiola aukeratutako ipuinen erabilera eskubide guztiak**, nola Cdan grabatzeko hala inprimatuta argitaratzeko.
12. Cdan grabatzea lokutore batzuen ahotsekin egingo da, ez ipuina kontatu dutenekin.
13. **Sari bakarra ipuina aukeratu eta publikatzea da**; parte hartzen dutenak helburu hau lortzen laguntzen duelako: euskararen erabilera areagotzea eta guraso nahi haurren euskararekiko harreman afektiboa handiagoa izatea.
14. Lanak aurkezteak oinarri hauek onartzea dakar.